



HERRIKO KONTSEILUAREN ERABAKIA ORTZAIZE HERRIA

2025eko maiatzaren 6ko saioa

Bi mila eta hogeita bost urteko maiatzaren seian arratseko zortzietan biltzera deiturik, herri honetako Herriko Kontseilua frantses legeak behartu kopuruan bildu da, bilkuren ohiko lekuan Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza saioko lehendakari izanik.

Presente ziren: CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Ezin etorriak: AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne, IDIART Claudine

Saioko idazkaria: DACHAGUER Peio

Deialdiaren data: 2025eko maiatzaren 2a

Afixatze data: 2025eko maiatzaren 2a

IPAR EUSKAL HERRIKO OIHAN BALIABIDEEN ZAINTEKO ETA E-CHO PROIEKTUAK EUSKAL OIHANEAN ERAGINEN DITUEN BIOMASA ERAUZKETEN KONTRAKO MOZIOA

(9.4 nomenklatura)

Auzapezak Herriko kontseiluari adierazi dio,

Euskal Elkargoak 2021eko ekainaren 19an bozkatu Klima Planaren helburuak kontuan izanik eta herriak euskal oihanak zaindu eta balioan ezarri nahi dituela. Ekintza horrek bat egiten du lurraldean bero-sareen garatzearekin, zeina energia berriztagarrietan, hala nola egurra, oinarritzen baita.

Helburu horien lortzeko, Euskal Elkargoak Egurraren Lurraldeko Hornikuntza Plana (ZLHP) sustatu du eta 2024az geroztik Ipar Euskal Herriko Oihanen Gutuna deitu urraspidea animatzen du lurraldeko eragile guziekin. Lurraldeko Hornikuntza Planari esker jadanik existitzen diren edo etortzekoak diren bero sareetarako egurra ustiatzeko eta erabiltzeko potentzialak eta kostuak identifikatu dira.

Urteko ekoizpena 286 000 tona ingurukoa litzateke, eta ezinbestekoa da lurraldeko bero sareen elikatzeko.

E-CHO proiektua

Elyse Energy enpresak 2023an E-CHO proiektua abiatu zuen, Lacq-eko industria eremuan karbono gutxiko molekulen ekoizteko 3 unitaterekin. Unitate batek 87 000 tona e-keroseno ekoiztiko ditu urtean, aireko garraiorako; 28 000 tona e-bionaphta kimika berdean erabiltzen dena erregaientzat eta 60 000 tona hidrogeno urtean beste bi unitateentzako beharrezkoa zaiona.

Hornikuntzari dagokionez, Elyse Energy enpresak dio 300 000 tona biomasa behar dituela urtero, eta inguruko oihanetako egurra erabiltzea aurreikusten du, hots 200 km-ko erradio batean. Ondorioz Euskal Herriko oihanak eremu horretan sartzen dira.

E-CHO proiektuari buruzko bilkura publiko bat izan da Baionan 2025eko otsailaren 3an.

Biarnon kokatuko den proiektuak, baina gure herrialdean hornituko dena, Ipar Euskal Herriko hautetsien arrangura piztu du hainbat arlotan:

- Euskal oihanetako baliabideen ustiaketa

Proiektu horrek ezinbestean talka egingen du gure tokiko kudeaketa estrategiarekin, Oihanen Gutunean aurreikusten diren iraunkortasun eta egurraren bidezko erabilpenarekin.

Oihanaren ustiatze ekonomia desorekatuko du merkatuaren prezioetik goragoko eskaintzak eginez.

Lehia zuzenean sartuko da existitzen diren eta egitekoak diren bero sareen hornikuntzarekin.

Halako egur bolumen baten hartzeak eta hain denbora laburrean kontsumitzeak oihanaren kudeaketan ondorioak izanen ditu, errotiko mozketak eta mozketak oportunistak lehenetsiz, kudeaketa iraunkor eta estaldura jarraikiaren kaltetan.

- Ur kopuru handien erabilpena, ur baliabidea urritzen ari den garai hauetan.

Proiektuak tokiko errekan 3,5 millioi m³ hartuko ditu. Urak ekoizpen prozesuan erabili eta tenperatura altuagoan isuriko ditu ingurunera. Uraren erabilpen horrek Aturri Garona Uraren Agentziaren kezka ere eragiten du. Ur baliabide soilaz gain, proiektuak eragin nabarmena izanen du ingurumenean, bereziki garai idorretan.

Ortzaizeko Herriko Kontseiluak honakoa adierazi nahi du:

- Ipar Euskal Herriko baliabideen zaintzeko borondatea (oihanak eta ura) lurraldearen erresilientzia ahalbidetzeko (karbonoa, baliabideak, bioaniztasuna)
- proiektuak lurraldeko proiektuekin sortuko duen lehiarekiko arrangura.

Honakoa adierazten du:

- Frantses estatuaren aginduei jarraikiz, zeinak herri elkargoei eman baitie Klima Planen koordinatzeko eskumena, oihan baliabideen lurraldeko kudeaketa baten alde dela,

ELYSE ENERGY enpresak E-CHO proiektuarekin euskal oihanetan biomasa erauztearen kontra dagoela, erauziko diren bolumenak, bertako proiektuekin sortuko den lehia eta Ipar Euskal Herriko biomasan izanen duen eragina kontuan izanik.

AHO BATEZ ONARTUA

Jardunean diren kideak: 15

Presente zirenak: 12

Adierazi diren bozkak: 12

ALDE: 10

KONTRA: 0

ABSTENTZIOA: 2

Gorago zehaztu urte, hilabete eta egunean deliberaturik. Presente ziren kideek erregistroa izenpeturik. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZE, 2025eko maiatzaren 6an

Auzapeza:

Jean-Marc OÇAFRAIN

Honako akta indarrean izanen da,
2025eko maiatzaren 12an argitaratu edo jakinarazi ondotik
eta egun berean suprefekturara igorri ondotik.